



LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILAKO IKASLEENTZAT ARIKETAK

1. Lehen pausoa, proposatutako bi espezieetatik bat hautatzea izango da, bidali dizuegun eranskina erabili beharko duzue horretarako.

2. ZER DAKIGU?

- Idatzi ezagutzen dituzun bost hegaztiren izenak.
- Markatu ezaugarri hauetatik hegaztienak direnak:
 - Arraultzak jartzen dituzte ○ Hegan egiten dute ○ Mokoa dute
 - Ilea dute ○ Lumak dituzte ○ Amaren sabeletik jaiotzen dira
- Zu hegazti bazina... zein izango zinateke?

3. ZER EGIN?: *origami* hegaztiak

Paper edo kartulina tolestua erabiliz, sortu hegaztien formak. Teknika ezberdinak daude, irakasleak lagunduko dizute ordenagailuaren bitartez forma eta modu ezberdinen inguruko informazioa lortzen. Paperezko hegazti hauek erabilia, gauza asko egin daitezke, besteak beste zintzilikarioak, eskutitz sorpresak, hegoak mugitzen dituzten txoriak, etab. Ez ahaztu hautatu duzuen hegazti mota kontuan izatea paperaren koloreak aukeratzerakoan!

4. Bidali Dbus-era argazki bat!

Paperezko hegaztiak ederrak izaten dira, etxean zein ikastetxean apaingarri gisa jartzeko. Bidaliguzue sortu duzuen paperezko artelanaren argazki bat. Hartara ongi jakingo dugu zein izan den hautatu duzuen espeziea gure autobusa izendatzeko. Ongi pasa!

ERANSKINA: espezieen deskribapena

Dendrocopos major, Okil handia



Gure okil ezagun eta hedatuenetako bat da. Moko sendoa duen hegaztia da, eta horri esker egurrik gogorrenak ere zulatzeke ahalmen ikaragarria du.

Luma zuriak, beltzak eta gorri distiratsuak ditu, eta luma horien artean, sorbaldetan bi orban zuri handi nabarmentzen zaizkio bereziki.

Askotariko dieta du, izan ere, intsektuak zein txita eta arrautzak jaten ditu, baita edozein motatako fruituak ere..

Okil handiak ateratzen duen soinu ozen eta azkarrari, zeina urrutitik entzuteko modukoa baita, atabalatzea deitzen zaio. Metrailadore batek ateratzen duen zarataren modukoa da, 12 kolpe azkarreko tarte laburretan kolpatzen du egur azala eta oihartzun efektu ikaragarria dauka. Bai emeek bai arrek atabalatzen dute, eta, zientzialari batzuen arabera, arraren eta emearen arteko amodiorako deia izan daiteke.

Alcedo atthis, Martin arrantzalea

Martin arrantzalea, duela gutxira arte Penintsulako ia ibai eta hezegune guztietan egon da, baina azken hamarkadetan ur gezek izan duten hondaketak gehien kaltetutako espezieetako bat da.

Lumadi ikusgarria du, eta azkar egiten du hegan. Ezponda hareatsuak behar ditu habia zulatzeke, bai eta arrain, uretako intsektu, larba eta anfibio ugari ere elikatzeke.

